

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### KIROLAREN OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024eko urriaren 18an hartutako erabakiaren laburpena: 2025erako kirol diru-laguntzetarako deialdi orokorraren berriazko oinarriak onesten dituen ebazpena**

BDNS (Identif.): 793389.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/793389>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa diru-laguntzen datu-base nazionalean kontsulta daiteke.

#### **Lehena. Onuradunak**

Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 9., 11. eta 12. artikuluetan ezarritakoaren arabera, irabazi-asmorik gabeko kirol entitateak nahiz beren jardunaren ezaugarriak direla-eta oinarriekin bat datozen irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradun, diruz lagun daitezkeen jarduerak antolatzen badituzte eta oinarri hauetan adierazten den moduan eta epe barruan eskatzen badute dirulaguntza.

#### **Bigarrena. Helburua**

Oinarri hauen xedea da 2025. urtean jolas eta kirol programak edo jarduerak antolatzeko eta garatzeko dirulaguntza-deialdia arautzea, betiere aurrekontuaren muga barruan. Programak eta jarduerak Vitoria-Gasteizko udalerrian bertan egin behar dira, eta/edo, nagusiki, Vitoria-Gasteizko herritarrek zuzenean edo zeharka parte hartzekoak izan behar dira.

Hemen arautzen diren laguntzek dirulaguntza izaera dute, eta arau hauen mende daude: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua –uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua–, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza (dirulaguntzen ordenantza orokorra, aurrerantzean), deialdia berriaz arautzen duten oinarri hauek, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 5.1 artikuluan aipatzen diren xedapenak.

#### **Hirugarrena. Oinarriak**

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2024eko urriaren 18an egindako ohiko bilkuran onartutakoak. ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Kirol eta Osasun Sailaren 2025eko ekitaldiko 24.40.03.3411.48935 aurrekontu-partidari egotziko zaizkio dirulaguntzak. Deialdiari dagozkion dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa 370.000,00 eurokoa izango da guztira, erabilgarri dagoen kredituaren barruan.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

20 egun balioduneko izango da eskabideak aurkezteko epea, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 18a

*Administrazio orokorreko teknikaria*

*MANUEL PÉREZ DE LAZARRAGA VILLANUEVA*